



BARREN
TOKIKOM



**Joskintza,
ahalduntzerako tresna**



STOCK FERIA

ELGOIBAR

URRIAK 6, LARUNBATA

10:00ETATIK - 14:30ERA

MAALAKO PARKEA

PARTE-HARTZEKO ETA INFORMAZIO GEHIAGO EDUKITZEKO DEITU 945742501



EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ
azaroaren 23tik abenduaren 3ra

Eman izena!

Ariketarekin bat egin duten ELGOIBARKO ELKARTE eta ERAKUNDEAK



Elgoibarko EUSKARALDIA Taldea

Danobatgroup
Elgoibarko Izarra
Elgoibarko Udala
Eusko Alderdi Jeltzalea
EH Bildu
Elgoibarko Haurreskola
Elgoibar Ikastola
Elgoibarko Herri Eskola
Ikastolako Guraso Kontseilua
Kalamua Guraso Elkarte
Morkaiko Mendizale Elkarte
Musika Eskola
Udal Euskaltegia

Sustatzaileak

AEK euskaltegia
Atabal Danborrada Elkarte
CD. Elgoibar
Egur arte tailerra
Errigora
Elgoibarko Kale Kantariak
Etxepe enpresa
Gainduko langileak
Gazte Asanblada
Gure Esku Dago
Haritz Dantzari Taldea
Haizea Emakume Taldea
IMH ikastetxea
Jaiki Gazte Taldea
LAB
Maalako Jai Batzordea
Mauxitxa txaranga
Sanlo Eskubaloi Taldea
SARE Elgoibar
Taupada Antzerki Taldea
Txankakua Merkatari Elkarte
Udal Musika Banda
Udalaren Txistulari Taldea
40-15 Tennis Elkarte
60 + taldea

Zuen elkarte edo erakundea zerrenda horretan ez badago eta EUSKARALDIA ariketaren sustatzaileak izan nahi baduzue, jarri harremanetan Elgoibarko EUSKARALDIA Taldearekin (943 741 626 / elgoibar@euskaraldia.eus) edota pasa San Frantzisko kalean daukaten lokaletik.

ENETZ EZENARRO

Matematika irakaslea EHU



Hogei urte

tzen zen onik ateratzeko baxtererik ez zeukala. Bere bizitzako azken gaua idazten pasatu zuen. Familiakoentzat, lagunentzat. Nerabe gogo hartan borborka zerabiltzan ideia matematikoak ere atondu eta idatzi zituen. Azken gutuna, Chevalierd lagunari zuzendua, bere lana Jacobiri edo Gaussi, garaiko matematikari handiei, erakusteko erregutuz, lortutako emaitzen garrantziaren jakitun. Hurrengo goizaldean, guardiako kapitainaren armak Évariste Galoisen sabelaldea zulatu zuen.

Gaur, gertaera hartatik ia 200 urtera, mundu osoko matematika ikasleek Galoisen Teoria ikasten dute beren lehen

urteetan. Zer aurkitu zuen zoro ukituko gazte hark, bere bizitzako azken gauen, izututa, lagunari idatzitako lerro makur soil batzuetan jaso zitekeenik? Mendeetako problema bati behinbetiko soluzioa eman zion Galoisen. Soluzio definitiboa, lilugarria. Matematikan bide berriak, sakonagoak, zabalduz. Besteak beste, unibertsoko partikula elementalen jokaera deskribatzeko balio dute gaur, Galoisen ideiek. 1832ko maiatzaren 30eko goizalde hartan, Évaristek, hilturren, bere anaiaren besoetan zetzalarik, honi malkoek lausotutako begietara begiratu eta esan omen zion: "Ez negarrik egin. Eman kemena. Munduko kemen guztia behar dut-eta 20 urterekin hiltzeko".

Évariste Galoisen bazekien, jakin, 1832ko maiatzaren 29ko gau hura, bere bizitzako azkena izango zela. Gazte iraultzaile, sutsu hark, bazekien 20 urterekin hilko zela hurrengo egunean. Guardiako kapitain batekin duela baterako hitzordua jarria zuen eta jabe-

"Gaur, gertaera hartatik ia 200 urtera, mundu osoko matematika ikasleek Galoisen Teoria ikasten dute beren lehen urteetan"



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzko Legebaitzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, losu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UOLA
KLUBA

LAGUNTZAILEAK:



MENDARO



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ **ERRAUSTEGIA GELDITU!**

Urriaren 27rako (larunbata), *Erraustegia Gelditu lemapean* manifestazioa antolatu dute Donostian Gipuzkoako hainbat eragile sozialek (Erraustegiaren Aurkako Mugimendua, GuraSOS, GEIS/OEIT, ELA, LAB, CCOO, ENHE, ESK, STEILAS, HIRU, Eguzki, ERNAI, Gipuzkoa Zutik, Greenpeace eta "No +Precariedad"). Manifestazioaren helburua hauxe da: Gipuzkoako (Zubietan) erraustegia gelditzeko eskatzea eta kontratua eten edo deuseztatu behar dela aldarrikatzea, arrazoi asko baitaude: ingurumena, osasuna, ekonomia, jasangarritasuna, demokrazia, etorkizuneko Europaren bideari eta ekonomia zirkularrari eustea...

Garaiz gaude, mahai gainean aukera guztiak jarri behar dira, eta inposaketarik onartzen ez dugunez, sinatutako kontratuari ez esan behar diogu. Osasuna, ingurumena eta herritarren interesak lehenetsi behar dira. Horregatik guztiagatik eta agintean daudenek herritarron nahia kontuan izan behar dutelako urriaren 27an, 17:00etan, Donostiako Mendurren plazatik abiatuko den

manifestaziora joateko deia zabaldu digute herritarroi.

Azken urte honetan, 2018an, eta arrazoi ezberdinak tarteko, atzerriko herrialdetan, gutxienez 18 erraustegi itxi edo geratu dituzte: Italia, Mexiko, Australia, AEBak, Irlanda, Argentina,... Eta estatu mailan beste lau. Gipuzkoan ere posible da, oraindik garaiz gaude. Gure etorkizunak eta ongizateak merezi duelako, kalera atera behar dugu. Gozen denok erraustegia gelditzera!

A.I.Z.

▶ **KANTU TOPAKETA DEBAN**

Urriaren 28rako kantu topaketa antolatu dute Deban eta kantua gustuko duten guztiei parte hartzera deitu. Bazkaria ere egongo da, baina bazkaritarako izena eman behar da. Elgoibarko Kale Kantarien taldeko batzuk ere parte hartuko dugu topaketan, baina bazkaritarako taldean eman nahiko genuke izena. Bazkaritara etorri nahi izanez gero, deitu 687 216 766 telefono zenbakira (goizez) urriaren 11 aurretik.

Kale Kantariak

▶ **OHARRA**

Urriaren 12ko jai-zubia dela-eta, datorren asteko BARRENa ostegunean jasoko duzue, ostiralean beharrean. Horregatik BARRENe argitaratu nahi duzuen mezua, eskertza edo zorion-agurrik izanez gero, gogoratu astearterako ekarri/bidali behar duzuela beranduezen. Eskerrik asko.

BARREN

GIPUZKOAN HAUR-TXOKOAK GAZTE-LEKUAK

Nire planik HOBERENA

NIRE LEKUA. NIRE LAGUNAK. NIRE MUNDUA

ATE IREKIEN JARDUNALDIAK

Ludotekan: Urriak 9. 18:00etan.

Gaztelekuan: Urriak 10. 19:00etan.

Mendaroko Gazte Asanbladak antolatuta, Gazte Eguna ospatuko dute bihar Mendaron

Mendaroko Gazte Asanbladak Gazte Eguna izendatu du biharkoa eta egun osoko egitaraua antolatu du, parranda gogoz direnak asetzeko modukoa. Eguerdian hasiko dute gazteek euren eguna, mantalak jantzita. Izan ere, pasta-lehiaketa antolatu dute Gaztetxean. Pasta, olio eta gatza Gazte Asanbladak jarriko ditu, eta hortik aurrera nahi beste osagai erabili ahal izango dituzte parte hartzaileek. Ondoren, elkarrekin bazkalduko dute aurrez izena emanda dauden gazteek Gaztetxean, eta jokoak izango dituzte bazkalostean [50 lagun baino gehiagok eman dute izena]. 19:30ean, poteoa hasiko dute Gaztetxetik bertatik abiatuta. Pasaiaiko ElektroTxufa txaranga izango dute lagun. Gauerako, berriz, kontzertuak iragarri dituzte Gaztetxean. Mendaroko gazte talde batek sortutako Jo ta Ito taldeak zabalduko du gaua, eta Gabiriko Guri 5 erromeria taldeak



hartuko die gero lekukoa. Parranda-giroa bera ziurtatuta dute bihar mendarorarrek.

Aiastiako San Migel jaiak giro politean ospatu zituzten asteburuan



Irailaren 29a San Migel Eguna izanik, Aiastia auzoan jaiak ospatu dituzte asteburuan. Ostiralean gazteek eta dantzak hartu zuten Murkaikupe frontoia. Borja Uzuriagaren omenez Haritz Dantza Taldekoek dantza saioa egin zuten, eta gazteek, afaria ondoren. Dantzak Fan&Go erromeria taldearen doinuekin jarraitu zuten.

Larunbatean, San Migel Egunez, meza, Ziarda eta Mañukortaren bertso saioa, pilota partidak, Saioa eta Maialen trikitilariak girotutako auzo bazkaria eta umeentzako parkea izan ziren lehiaren aurretik. Bolo txapelketa izan zen arratsaldean eta Pedro Gomez izan zen irabazle 6 txirilo botata. Honen ondoren, Angel Ibarluzea, Sergio Rodriguez eta Iñaki Burunza. Gaua afari giroan hasi, Jone



Uria eta Nerea Ibarzabalen bertsoekin segi eta Obaneuren musikarekin jarraitu zuten.

Igandean artzain eta itzainek hartu zuten lehiarako txanda. Baltzola eta Andonegi trikitilarien doinuak ezezik Aiastiako zelaietan Euskal Herriko arraza libreko artzain txakur txapelketaren finala jokatu zen eta Pello Segurola izan zen irabazle Argi txakurrarekin. Arratsaldean, berriz, idi-demen txanda izan zen. Lehen bi partaideen artean lehia nahiko estua izan zuten, baina Isidro Erretegiak irabazi zuen.

Jaiak, baina, ezin txahala zozketatu gabe bukatu. Zerbaki saritua 4.706 izan da aurten, eta, ordezkoa, berriz, 5.099 zenbakia.

Zahartzaro duina eskatzeko kalera irten dira berriz pentsiodunak



Borrokan jarraitzen dute eta ez daude amore emateko, gainera. Astelehenerako kalera irteteko deia egin zuten jubilatuen eta pentsiodunen elkarteetatik, eta milaka lagunek parte hartu zuten han-hemen egin ziren mobilizazioetan. Elgoibarren, hamabostean behin astelehenetan egin ohi duten moduan, elkarretaratzea egin zuten Kalegoen plazan urriaren estreinako egunean ere, eta ondoren, manifestazioan abiatu ziren herriko kaleetan barrena. Aurrez, baina, Eibarren egin zuten eskualde mailako manifestazioan parte hartu zuten hainbat elgoibartar eta mendaroez. Pentsio duinak eskatu zituzten, "zahartzaro duina". Astelehenerako mobilizaziorako zita, baina, berezia izan zen, adineko pertsonen nazioarteko eguna izendatua dagoelako urriaren 1a.

Herriko 21 merkatarik hartuko dute parte Txankakua Elkartearen Maalako Stock Azokan

Txankakua Merkatarik Elkarteak Stock Azoka egingo du bihar, urriak 6, Maalan, 10:00etatik 14:30era. Guztira, herriko 21 merkatarik hartuko dute parte: Aauri, Astigarraga, Ecenarro, Ene Bada, Evoka, Ikus, Ferpi, G&M, Garate, Goiara, Ipintza, Iria, Iriondo, Klitz, Moma, Muruamendiaraz, Nalai, NuVan, Sara, Uzuri eta Gobike. Txankakua maskotak 11:30etik 14:30era ibiliko dira azoka gunean eta 14:00etan 600 euroko zozketa egingo dute. Irabazlea Maalan egotea ezinbestekoa da saria jaso ahal izateko.



'Zure borondatea, zure aukera' hitzaldia Elgoibarren, hilaren 16an

Zure borondatea, zure aukera izenburuko hitzaldia antolatuko dute Nagusilanek eta Elgoibarko Udalaren Ongizate Sailak urriaren 16rako. Hurkoa fundazioko Itsaso Gonzalez izango da hizlaria eta ezgaitasun egoera baten aurrean zer egin azalduko du. Aurretiazko borondateaz zer ulertzen den ere azalduko du eta norbere erabaki ahalmena kontuan hartzeko aurkeztu beharreko dokumentuez eta abarrez mintzatuko da. Hitzaldia Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da, 19:00etan.

Izena emateko azken egunak Elgoibarko Debabe euskaltegian

Ikasturtea hastear dagoenean, Debabe Udal Euskaltegitik jakinarazi dute oraindik ere lekua dagoela euskara ikasteko. Informazio gehiago nahi izanez gero, pasatu Udal Euskaltegitik (Kalebarren plaza, 2) edo deitu 943 742 731 telefono zenbakira.

Auzoari buruzko bideo-txatalak batzen hasi dira ONU auzokoak

Gaur Ermuaranbide izena duen kalekoek, garai bateko ONU auzokoek, ekitaldi berezi bat iragarri dute azaroaren 10erako. Herriko Antzokian izango da ekitaldia eta auzoaren historiari buruzko dokumentala eskainiko dute bertan. Era berean, baina, auzotarren oroitza-penak ere batu nahi dituzte, dela bideo formatuan edo bestela. Norbaitek zerbaitez kontatu nahiko balu, jarri dadila harremanetan antolakuntza taldekoekin: Gloria Bollar, Andoni Segundo edo Gerardo Otero.

Loreak, lore berri bila

Emakume migratzaileen Loreak taldean ez dute udazkenik nahi. Emakumeen artean aliantzak sortzen eta elkarrengandik ikasten jarraitu nahi dute, baina horretarako talderako kide berriak behar dituzte, arrazoi ezberdinengatik taldea utzi behar izan dutelako sorrerako emakume erreferenteetako batzuek. Urteotan hainbat tailer eta ekimen sortu dituzte Loreak-en bueltan, beti ere ahduntze feministarako, eta nahiko lukete dinamika horri eustea. Joskintza tailerra da boteretzeko duten tresnetako bat, eta Pedro Mugaruzako eskolan elkartu gara haiekin.

- AINARA ARGOITIA -

Duela pare bat urte sortu zuten Loreak taldea etnia eta jatorri ezberdineko hainbat emakumek, Elgoibarko Zabaltzen-Sortu erakundearen babesean, eta orduan zerrendatutako helburu-sorta berari eusten diete oraindik taldekideek, taldeak orduko giharririk ez badu ere. Funtsean bi helburutan batu daitezke sorrerako helburu guzti haiek: emakume migratzaileak ahdundu eta ikustaraztea eta kulturartekotasuna sustatzea. Horretarako sareak josi nahi dituzte emakumeen artean, ahizpatasuna landu, baina zaila zaie, atzerritarra eta klase sozial apalagokoa izateak berariak dakartzan zailtasun erantsiengatik. "Taldeko erreferente ziren emakume batzuek utzi egin behar izan dute, kanpoan lana topatu dutelako edo beste herri batera migratu behar izan dutelako familia hartuta". Horregatik, taldea indartu nahi dute orain, deialdia egin jende berria inguratzeko. "Pena litzateke horren lagungarri zaigun talde hau galtzea", nabarmendu du Marian Mousaifek, Loreak-eko presidenteordeak. Mousaif marokoarra da sortzez eta duela zortzi urte iritsi zen Elgoibarrera. "Neure burua indartzen lagundu dit Lo-



Joskintza tailerrean dabilzan emakumeak.

reak-ek", dio. "Loreak-en ahdundu dira emakume hauek. Konfiantza hartu dute euren buruengan, autoestimuan irabazi dute, nolako bizitza-proiektua nahi duten ikusteko balio izan die proiektu honek, eta bide horretan lana topatu dute eta profesionalki ere garatu dira. Mousaif Zumaiako enpresa batean ibili da lanean, jostun, berak nahi zuen horretan", gehitu du ondotik Miriam Caro gizarte hezitzaileak.

Mousaif bera da taldeko liderretako bat, Elgoibarrera iristen diren emakume askorentzako erreferente bat. Hona iristen diren asko "galduta" egoten dira, besteak beste hizkuntza ere arrotza zaielako eta "lehenengo harreran" laguntzen diete Loreak-en. "Erakundeotan gabiltzanok ere zailtasunak izaten ditugu migratzaileekin komunikatzeko hizkuntza dela-eta. Loreak taldeko emakume erreferente hauek, baina, ezagutzen dute arabiera, wolo-

fera, urdua... eta hori laguntasun handia izaten da emakume migratzaileei lehen harreran laguntzeko", dio Carok. Gizarte zerbitzuetara laguntzen diete, eskolan matrikulazio tramiteak egiten, paperak zuzentzen eta konfiantza giroa sortzen ere bai, sorterritik urrun joan behar izan duenarentzat herrikide bat topatzea bera beti delako lasaigarri. "Aurreiritzi asko daude oraindik, baina garbi laga nahiko nuke inork ez duela bere herria gustoz lagatzen; ez dela erraza dena laga eta bizi-modua kanpoan topatzea. Ez gatoz hona beste batzuen kontura bizitzeko asmotan. Lanera gatoz, gure seme-alabek guk izan duguna baino bizitza hobea izan dezaten. Zailtasunak asko dira, eta emakumeen kasuan trabak beti dira handiagoak. Loreak-en ere igarri dugu, taldekideoi zaila zaigulako dinamikari berari eustea", azaldu du Mousaifek. Carok beharrezko ikusten du emakume migratzaile-

leen motxilak daukan pisua bistaratzea: "Ez dabilta kapritxo hori. Garbi esan behar dugu bi urtean behin herriz aldatu behar izatea ez dela kapritxo, bizi-raun nahi bat baizik. Guk geuk ere gauza bera egingo genuke haien egoeran".

EMAKUMEAK, AHALDUNTZEKO BALIABIDEAK

Emakume migratzaileen taldea da berez Loreak, baina antolatzen dituzten tailerretan atea zabalik dute hemen

bertako emakumeentzat ere. "Ibili dira eta badabilta bertakoak ere eta oso gustura etortzen direla aipatu izan dituzte denek. Guretzat aberasgarriena hori da, zubiak eraikitzea emakumeon artean".

Alfabetatze eskolak eta gaztelania ikasteko tailerrak antolatzen zituzten lehenengo eta gero etorri dira besteak, tartean jostintzakoak, josten ikasteko ez ezik sozializatzeko bidea ere erraztu diena askori. "Kolorean, arrazan, klasean eta

beste mila kontutan ezberdinak izan arren, emakume guztiok komunean gauza asko daukagula ikasi dugu josten ari garela. Hitz egin dugu gure kezkez, gure beharrez, emakumearen eguneroko kontuez", esan du Mousaifek, gaur arte jostintza tailerra zuzendu duen Maddalena Aduriz hezitzailearen lekukoa hartu duenak. Pedro Muguruzako eskoletan elkartzen dira ostiralero, 9:30etik 13:30era eta atea zabalik dute. Intere-satuek hara aurkeztu besterik ez dute.



MADDALEN ADURIZ HEZITZAILEA BERDINTASUN GAIAZ

◆ Zergatik da jostintza horren tresna baliagarria ahalduentze feministarako?

Historikoki emakumeek esparru pribatuan josi dutelako eta emakume askorentzat beste emakume batzuekin elkartzeko eta sozializatzeko esparru bakarria izan delako jostintza, eta horregatik garrantzitsua delako gure aurreko emakumeen ezagutza berreskuratzea eta horri balioa ematea. Josten ikasteak aukera ematen digu inposatutako neurriei, joerei eta estereotipoei uko egiteko eta baita ere modaren enpresa multinazionalen ez kontsumitzeko. Gaur, modaren patroietara egokitu behar izaten ditugu emakumeok gure gorputzak, eta guk gure gorputzera egokitzen diren jantziak egin nahi ditugu. Horrez gain, josten jakinda, gure jantziak konpondu eta gure gustuetara moldatu ahal izango ditugu, horrenbeste arropa bota beharrean. Prozesu hori guztia geure eskuekin egin ahal izatea ere gauza handia da, eta baita emakumeok modu kolektiboan geure aisialdiaz gozatzeko aukera izatea ere; Astean lau ordu geure buruei eskaini ahal izatea. Moda hain dago feminizatua, jostera apuntatzen diren %90 emakumeak direla eta horrek gauza asko konpartitzeko aukera ematen digu eskolan. Etorri diren gehienak andre migratzaileak izan dira, baina egon dira bertakoak ere eta oso polita izan da beste espazioetan topatzen ez den jendea hemen elkarrekin ikustea. Autodefentsa-sare polita sortu da.

◆ Alde praktikoari besteko garrantzia eman diozu teorikoari. Zer ikasi duzue?

Klase praktikoetan: gorputzaren antropologia, gure gorputzetara egokitzen diren patroiak neurritan egiten, patroien horiek transformatu, oihala moztu eta josten. Teorikoan, berriz, modak nola zapaltzen gaituen ikusi dugu. Ikusi dugu industria feminizatua dugula moda-industria (langileen %80 emakumeak dira) eta gutxietsitako lanbidea dela, justu horrexegaitik. Irabazi gehien ematen dituen industria izan arren, langileei gutxi ematen dien industria da modarena. Europar kontsumitzen ditugun jan-

tzien %70 Asian, Europa ekialdean edota Afrika iparraldean egiten dira, modako lobbyek lan-eskubiderik ez dagoen herrialdeetara jotzen dutelako eskulan merkearen bila. Herrialde horietan emakumeak esklabo gisa ari dira lanean, eta guk, hori kontsumituz, emakume horien aurkako indarkeria sustatzen dugu. Zapaltzen ditugu emakume horiek eta zapaltzen gaitu gu moda-industriak, publizitate sexistaren bidez. Argalak eta gazteak nahi gaituzte, gizonentzako desiragarri, eta horrek gure gorputzarekin borroka etengabe egitera kondenatzen gaitu, kasu batzuetan gaixotzeraino. Patroigintza industrialean altuera jakin bati zabalera eta proportzio jakin batzuk dagozkio, baina ez da erraza haiekin bat egitea, kasu gehienetan jantziak ez direlako gure gorputzetara egokitzen. Gainera, saltokiek nahi dituzten neurriak sortzen dituzte, gure emozioekin jostaluz. Joera dago, adibidez, neurriak handitzeko, guri geure neurriak txikiagoak direla sinestarazteko.

Modaren esklabo gara. Arropa asko botatzen dugu apurto aurretik. Modatik aldentzen saiatu eta joera berriak sortzen ari garela uste dugunean ere, denok bukatzen dugu modaren lobbyetan erosten, joera, talde eta mugimendu guztiak asimilatzen dituztelako lobbyek. Moda baliatzen dugu klase edo talde baten parte sentitzeko edo besteengandik bereizteko, eta zaila zaigu gizarteak modaren bitartez jartzen dizkigun mugak apurtzea, beti daudelako pasa ezineko marra gorriak, kontrol sozialerako jarritakoak: gehiegi erakusten baduzu, puta zara, eta bestela, moja. Beti da zerbait.

Ingurumena ere aipatzen dugu. Gehien kutsatzen duen industrietako bat da modarena. Arropa asko botatzen dugu eta zabor pila bat sortu. Era berean, lehengaien ekoizpen masiboak eta ekoizpen prozesuan erabiltzen dituzten pestizidek ondorio kaltegarriak eragiten dituzte, bai ingurumenean eta baita langileen osasunean eta janzen ditugunonean ere. Deslokalizazioak berak ere kalte handiak sortzen ditu, etengabeko garraioan ibiltzeko kutsadura sortzen duelako. Ezinbestekoa zaigu kontsumo-kultura kontzientzia zabaltzea eta balio horietan hezteak.

"Jostintza boteretze feministarako nola baliatu ikasi dugu, eta autodefentsa-sare polita sortu da tailerretan"

“Gure bigarren etxea da ospitalea”

Agerkari honek beste urte bete zituen iaz Mendaroko Ospitaleak: 25 urte. 1993an zabaldu zuten ofizialki Debabarrenako ospitalea dena, baina ordurako proiektu hartan lanean zebiltzan Maribi Ondarre elgoibartarra eta Nekane Zulaika mendarorarra. Gaur, hasierako giza talde hartatik Mendaron lanean jarraitzen duten baka-rretakoak dira, eta aitzaki hori baliatu dugu haiekin bildu eta urte guzti hauek eman dutenaren laburpentxo bat egiteko.

- AINARA ARGOITIA -

Mendaroko Ospitaleko beteranoenak dira Maribi Ondarre eta Nekane Zulaika, beterano hitza bera entzuteak erreparo pixkat eman dien arren. Jose Antonio Ardanza Jaur-laritzako lehendakariak eta Iñaki Azkuna orduko Osasun sailburuak 1993an zabaldu zuten ofizialki ospitalea, baina ordurako gizatalde bat hasia zen proiektu hartan lanean, eta talde horretarako hartu zituzten beraiek ere. Elgoibarko anbulategian egokitu zieten bulego batean hasi zen lanean Maribi zuzendaritza-taldekoen ondoan, harik eta uda aldera, Mendarora aldatu ziren arte. Eta uda ostean batu zen talde hartara Nekane, irailean. Ez dauka ahazteko: “Niretzat opari itzela izan zen herrian bertan lanean hastea, non eta ospitalean”, esan du. Zuzendariaren idazkari lanak bete ditu ordutik batak, Maribik, eta administrazio lanean jardun da besteak, Nekane. Gaur, Ospitaleko tabernan batu gara haiekin, mokaduxo bat egiteko aitzakian. Berba-jario bizikoak dira biak,



Maribi Ondarre eta Nekane Zulaika.

eta ilusioa nabari zaie ospitaleaz berbertan ari direla. “Gure bigarren etxea da hau, eta geure-geure sentitzen dugu. Zenbat negar egiten ote nuen urteurren ekitaldian ere!”, dio Maribik. “Benetan ba! Argazkiak ikusten hasi orduko, negarra. Harro gaude hemengo parte izateagatik. Nik neuk mina ere sentitzen dut norbait ospitaleaz gaizki esaka entzuten dudanean”, gehitu du Nekane.

Donostia Antiguako Osasun Mentaleko Zentroan egiten zuen lan Maribik, elgoibartarra zela jakinda Imanol Apalategi Mendaroko Ospitaleko lehen zuzendariak lanpostua zerbitzu eginkizunetan betetzeko deialdira aurkeztea proposatu zionean. Espero bako eskaintza zuen eta errezero handiekin onartu zuen. “Akorda-

tzen naiz honelaxe esan niela elkarrizketan Imanoli [Apalategi] eta Iñaki Unzargari: ‘Gustura ez baldin banago, banoa ni berriz lehengo lekura!. Pentsa zer nolako harrokeria nirea! Imanolek, gure lehenengo zuzendariak, beti gogorarazten dit’, oroitu du Maribik. Nekane, berriz, oso bestela hartu zuen eskaintza. Londresen bizi zela jakin zuen Debabarrenako ospitalea Mendaron egiteko asmoa zutela, baina geroago, alzheimerrak jotako ama zaintzeko Gasteizen, Osasun Sailean, zuen lanpostua laga berria zuzenean, iritsi zitaion Mendaroko Ospitalean lanean hasteko eskaintza. “Izugarria izan zen”, dio.

Biak zetozen osasun mundutik nolabait esatearren, baina aitortu dute hasierako

urte haietan dena egin zitzaiera berri. Baita bulegoan jarri zieten lehenengo ordenagailua ere, gaur sinesgaitza egiten bada ere. Bulegoan ordenagailua jarri ziotela ikusita, Maribik erabaki zuen "ikaste aldera" etxerako beste bat erostea, lantokian trepeta eman bai, baina inork ez ziolako nola erabili irakatsi. Koinatua ingeniaria du, baina informatika-gaietan jantzia, eta haretzek sartu zion etxekoan programa, Word perfect. "Atera kontuak!", dio programaren zaharrari erreferentzia eginez. Badu ordenagailuari lotutako anedoktarik ere. "Elgoibartik Mendarora etorri berritan, akordatzen naiz han nengoela ni ordenagailu aurrean eta etorri zitzaidala Imanol zuzendaria izugarri maite dudana bide batez esandeanez informea inprimatu beharko genielako Gasteiztik etorriak ziren arduradun nagusiei. Eta nik jakin ez inprimatzen! Haiek ziren izerdiak! Jakina, orduan haiek *la hostia* ziren guretzat", kontatu du eta leheritu dira barrez.

Formazioa norbere kontu zen orduan. "Ez zegoen denborarik, eta formazioaz galdetu ere ez genuen egiten". Halaxe joan zen Maribi Oviedora ere, bere kontutik ordainduta, ospitaletako idazkarietza formazio saio batera. "Onkologikoko bi neska ere joatekoak zirela jakin nuen eta haietako baten etxera joan nintzen ea berarekin joaterik nuen galdezka. Ipuinetako kontua ematen du,

baina halaxe izan zen. Haiekin eta haiek bati laguntzera joan zitzaion senararekin joan nintzen Oviedora. Ez nuen ezer ikasi, baina garai hartan dena egin behar zen ospitalearen alde", oroitu du. Eta zuzendu egin dio lagunak: "Esperientzia guztietatik ikasten da, Maribi. Gogoratzeko euroa sartu zen urtea? Zer izan zen hura? Urte zahar gava ere ospitalean eman zuten zuzendariak-eta programak eta abar guztiak eguneratzen. Estuasun hartan ere asko ikasi genuen".

LANA, LANA ETA LANA

"Ospitaleko lana zer zen ere ez genekien. Gauza asko erabat berriak ziren guretzat. Idazmakinako zuzentzaileari eman eta eman aritzen nintzen", dio Nekane. Goiz eta arratsalde aritzen ziren lanean, zenbatu ezin beste ordu, baina orduan ez zitzaion lar ardurara. "Dena ari ginen sortzen eta bizi genuen hori. Lantalde izugarria geneukan, gainera, eta ilusioz gainezka geunden guztiok", gehitu du Maribik. Elgoibarko Mekan ikasitakoak izan arren eta bost kilometroren barruan bizi arren, autobusean ezagutu zuten elkar Maribik eta Nekane. "Gasteiztik zentozen zu eta Mendarora lanera nindoan ni", oinarazi dio Maribik lagunari. Hantxe hasi zuten harremana, denborak sendotu duena. "Akordatzen zara? Dena ospatzen genuen orduan. Zenbat afari eta zenbat bazkari...", bota du Ne-

kanek. Konplizitate handia dago bien artean.

Memoria egiten hasi dira bat-batean. Urteurren ospakizunean bizitakoak ekarri dituzte gogora lehenengo, ekitaldirako sortu zuten argazki zaharren albumean islatutako mila momentu goxo, eta lerro hauetan kontatu ezin diren beste mila bizipen zerrendatu dituzte gero, afari, parranda eta abarretan bizitakoak. "Familia txiki bat ginen hemen. Oso harreman ona geneukan gure artean", dio Nekane. Ordutik asko hazi da ospitalea jakina, eta gaur hartu duen bolumenarekin ez da beti erraza orduko familia-giroa mantentzea, baina orduko esentziak bizi-bizi jarraitzen du. "Denek esaten dute hemen daukagun giroa ez dagoela beste inongo ospitalean. Urteurren ekitaldian halaxe esan zidan lankide batek: 'Beste ospitale txiki batzuk ere badaude egon, baina mantendu hemen daukazuen giro hau'", oroitu du Maribik. "Bai, bai, urteurren ekitaldira orain hamabost bat urte hemen ibilitakoak ere etorri ziren. Horrek asko esan nahi du gero!", bota du Nekane.

Ospakizunean bildu zirenen izen-abizenak bota dituzte errenkadan, tartean sendagile eta erizain askorenak ere bai. Bistan da gertuko dituztela haietako asko. "Maite-maite ditugu denak. Palomar eta Tubia zirujavei, duela asko ez dela esan nien egin beharko genukeela berriro beste bazkaritxoren bat hasierako talde hartar-



Nekane Zulaika eta Maribi Ondarre BARRENen azal banarekin agerkari honen 25. urtemuga ospatzeko maiatzean Kalegoen plazan egin genuen ekitaldi jendetsuan. Mendaroko Ospitaleari eskainitako bi azal orriak eramateko aukeratu genituen.

Bost lagun hil eta 33 lagun zauritu ziren Eibarren izan zen tren-istripuan.

koek”, dio Nekanek. Ospitaleko korridorean doktore tituluaren ondoan irakur ditzakegun izen-abizendunetz ari dira, goxo, “karino handiarekin”.

Ari dira bat eta beste gogoratzen, eta halako batean, Manu Olalde otorrinolaringologoaren kontsultara joan zen aldi batean gertatutakoa ekarri du gogora Maribik. “Adinaren kontua ez daramat batere ondo eta kontsultara joan nintzaion batean gezurra esan nion Manuri. Eta berak, hala erantzun zidan: “Ia, Maribi, faborez. Ez al dakizu ia kinto berekoak garela eta elkarrekin hasi ginela hemen? Ez al dakizu ia neba-arrebak garela eta gainera zure historia ere badudala?”. Ezin izan diote barreari eutsi biek.

Ospitalak beste bolumen bat hartu du, baina, eta gaur jende gehiagorekin ditzute harremanak, beste era batekoak izan da ere.

2011z geroztik, Debabarreneko Era-kunde Sanitario Integratuan sartuta dago Mendaroko Ospitalea, eta horrek egunerokoan ere aldaketa handiak ekarri dituela aitortu dute gaurko bi elkarrizketatuek. Ospitala eta Lehen Mailako Arretako zentroak (Deba, Eibar, Torrekua, Elgoibar, Ermua, Mutriku eta Sorluzeko Osasun zentroak eta Itziarko, Mallabiako nahiz Mendaroko kontsultategiak) elkarri lotuta daude. “Lehen ez geneukan ambulategiekin harremanik eta orain egunero ari gara haiekin hartuemanean. Positiboa da, baina lana da”.

ILUNAK

Aurrera eta atzera salto egiten dute so-lasaldian. Horrenbeste kontu datozkie burura ezin diotela hari bati segi. Bizipen positiboak dira gehienak, baina aurpegi-erakundeak ere badituzte. Maribik ekarri du akordura horietako bat, 1995eko otsailaren 27raino atzera eginda. Egun horretan, 13:10 inguruan, bidetik irten zen Donostia-Eibar bidea egiten ari zen tren, Eibarren, Azitain inguruan, eta bost lagun hil eta 33 zauritu ziren. Zauritu haietako batzuk Mendaroko Ospitalera eraman zituzten, eta gainerakoak Arantzazu Ospitalera eta Galdaka-



okora. “Ez dut sekula ahaztuko egun hura. Tren istripuan zauritutakoen senideen aurpegiak ikus ditzaket oraindik leihotik begira, noiz berriren bat entzungo. Senide batzuk gure bulegoraino sartu ziren eta nola erantzun ere ez genekien. Eta telefonoa ez zen isildu ere egin egun osoan. Karlos Zulueta etorri zitzaigun laguntzera [Donostia Ospitaleko zuzendaria garai hartan]”. Pasarte beltzak beste pasarte ilun bat gogorarazi dio Nekaneri. Mendaroko Ospitalea eraikitzeke obretan ari zirela, eskolatik piper eginda inguru hartan lagunekin jolasean ari zen gazte bat hil zela ezbeharrez, herriko mutila bera. “Oso gogorra izan zen. Gure lehengusua ere berarekin zebilen han”.

MUGARRIAK

Beste data esanguratsu batzuk ere izan dira, baina, Mendaroko Ospitalearen historian, medikuntzari lotuagoak. Aitzindari ere izan baitira Mendaron gauza bat baino gehiagotan. Tokoginekologia Saila zabaldu eta gutxira, adibidez, 24 orduz anestesia epidurala eskaintzen hasi ziren Mendaron, hemen inguruko beste ospitaleetan baino aurretik. Era berean, 2007an, gizonezkoek izaten dituzten gernu-ihesen kontrako kirurgia berri-tzaile bat aplikatu zuen lehen ospitalea izan zen Mendarokoa estatuan. Peio Arro-

sagarai Urologia Saileko buruak aurkeztu zuen, ebakuntza gelatik bertatik, bideo-konferentzia bidez, eta Euskal Herriko nahiz atzerriko ehunka lagunek jarraitu zuten, baita Nekanek eta Maribik ere.

Mugarritzat dute, era berean, Etxez Etxeko Ospitaleratze Zerbitzua martxan jarri izana ere. 2008an izan zen. “Izugarrizko aurrerapausoa izan da. Batetik, zainketa aringarrien printzipioarekin oso lotua ikusten dudalako eta bestetik gaixoaren perfila ere aldatu egin delako, eta ospitalean ingesatutakoak gero eta gehiago direlako patologia askoko adindunak. Etxez Etxeko Zerbitzua jarri aurretik Bartzelonako VIC ospitaleko aditu bat izan genuen Mendaroko Ospitalean zainketa aringarrien gainean hitz egiten eta hark argi esan zuen bidea hori zela”, gogoratu du Nekanek.

Une gogoangarri asko izan dituzte 28 urtean, zailtasun ugari egin diete aurre eta harro nabari zaie ospitaleaz eta Osakidetza ematen duen zerbitzuaz ari direnean. “Jendeak edozer esango du, baina hemen besteko osasunbide publikorik ez dago beste inon”, esan du Nekanek. Horretxi eustea nahi lukete. “Horrek izan behar du erronka: gaurko zerbitzu kalitatezkoak eta arretari eustea eta ahal den neurrian hobetzea”, gehitu du.

Mikel Etxaniz eta Amaia Arregi jai-egunaren antolatzaileetarikoa bi.

Kinto-ospakizunen egunean gutxienez 23 talde elkartuko dira Elgoibarren

Urriaren 27rako antolatu dute Elgoibarren kinto-ospakizunen eguna. Horrelako beste asko bezala jai giroan eta lagun artean sortutakoa da ideia, antolakuntza taldean dauden Amaia Arregik eta Mikel Etxanizek esan dutenez. "Beste herriren batean egiten zutela entzun eta ideia kopiatuta gurera ekarri dugu". Hortaz, adin bereko taldeak elkartuko dira jatorduen bueltan, eta gero kalean jai girorik ez da faltako denek egun bera aukeratu baitute horretarako.

Herritarrek herriarentzat jai giroa sortzea da egun honen helburua. "Erraz egiteko formula iruditu zitzaigun kinta bakoitzak bere ospakizuna modu independentean antolatzeari ardurak banatuz. Hau da, non eta zer bazkaldu, zenbat diru eta nola jaso, bazkariak gain besterik antolatu nahi ote duten... bakoitzak erabakiz", esan digu Mikel Etxanizek. Eta hala egin dute, jendearengana sare sozialen eta whatsappen bidez iritsi eta giroa piskanaka berotuz.

Deialdia egin eta herri osoarengana iritsi ez baziren ere argi utzi nahi dute herri osoarentzako jaia dela (18 urtetik gorakoentzat). "Jendeak pentsatzen du adin tarte jakin batekoentzat dela eta ez da horrela. Hortaz, oraindik kinto-ospakizuna antolatu ez edo honen berri izan ez dutenei esan nahi diegu garaiz dabiltzala egiteko", dio Etxanizek.

Antolatzaileen esanetan oraingo 23 taldek jakinarazi dute egun horretan egingo dutela kinto-ospakizuna. "Baina ez dakigu bakoitzean zenbat lagun elkartuko diren. Zenbatek eta zein jate-txetan egingo duten galdetu arren, datu guztiak ez daude jasota", esan du Amaia Arregik.

Jangela duten herriko jate-txehienak, denak ez badira, beteta daudela jakinarazi digute. "Gu, esaterako, egun honen berri izan eta 45 lagun izango ginela jakinda jate-txetara deika hasi ginenean asko jadanik beteta zeuden eta gu joango garen jate-txean beste hiru kinto-bazkari egongo dira", esan du Arregik. Ospakizuna elkarrekin egingo duenik ere izango da. "Askoren beldurra zen ospakizun hau, herri mailan antolatuta, egongo ote zen ostalaritzak horri erantzuteko modurik eta gutxi gorabehera zenbaketa orokor bat egin genuen jate-txe eta elkarrekin tokiekin

eta kopuru handiak ziren", dio Etxanizek.

Kinto-ospakizunak baliatu ohi dira aspaldi ikusi ez diren txikitako lagunekin, anekdotak, garai bateko pasarteak konpartitzeko... eta oraingoan, norbere kintakoekin elkartzeari gain, gero, kalean, beste herritarrekin jai giroan bat egiteko aukera izango da.

Idea talde batean sortu arren, asteburu horretarako kultura ekitaldiak ez dituzte beraiek antolatu. Udalera jo zuten asmoaren berri ematera eta Udaleko Kultura Sailak erabaki zuen eskuartearen zutuen egitasmo batzuk egun horrekin bat egitea. Batetik Elgoibarko Artalde artisau taldekoen azoka izango da larunbatean eta igandean 11:00etan hasita iluntzera arte Maalan. Bertan egingo dute foodtruck merkaturia ere ostiralean 18:00etatik aurrera, larunbatean 11:00etatik 02:00etara arte eta igandean 11:00etatik 20:30era. Horrez gain, umeentzako ekintzak ere izango dira 12:00etatik 14:00etara. Kontzertuek ere izango dute lekua asteburuan Maalan. Ostiralean 20:00etan hasiko dira eta larunbatean 23:00etan. Puro Relajo talde nafarra airtuko da kantu mexikarrekin zein euskal kantu klasikoekin bertsioekin jaia girotuz. Mikel Etxanizek esan du jendearentzat, batez ere afari ordurako, Maala inguruan zerbait ezberdina jateko tokia izatea primerakoa dela eta kontzertuek zein azokak ere girotuko dutela herria.

Kinto-ospakizunen eguna jairako aitzakia aproposa izango da. "Batzuk esan digute sekula egin gabeak zirela kinto-ospakizunik eta aitzakia honekin antolatu dutela; beste batzuek adin zehatz batekin edo hainbat urtean behin antolatzen zuten eta orain hala tokatu ez arren egingo dute. Beraz, gu ere pozik gaude horrelako jai bat bultzatzeaz", esan dute Amaiak eta Mikelek.

Ehundik gora lagunek eman dute izena Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatut duten 'Euskara ala ezkara' ziklorako

Euskara ala ezkara zikloak hamar urte beteko ditu aurten, eta urteurrena berezia egin nahi izan dute antolatzaileek, Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Elgoibarko Udalak, DanobatGroup eta IMHren babesarekin. Bihar izango da zikloa, eta itzal handiko 20 kulturgile batuko dituzte Elgoibarren, kulturaz solasteko. IMH ikastetxean ekingo diote zikloari, 9:30ean, eta Kultur Etxeko sotoan emango diote amaiera 19:30ak aldera. Antolatzaileek aurreratu dute ehundik gora lagunek eman dutela izena eta pozik agertu dira erantzunarekin.

Egunaren hasieran kulturgintzaren egoera orokorra aztertuko dute, Gotzon Barandiaran idazle eta kulturgilearekin, Lorea Agirre filologo eta *Jakin* aldizkariko zuzendariarekin eta Harkaitz Cano idazlearekin, eta hamaiketakoaren ostean gaika arituko dira: musikaz hitz egingo dute



Uxue Alberdi eta Mari Luz Esteban iazko zikloan.

Odei Barroso bertsolariak eta Ines Osinaga musikariak; antzerkiaz Oier Guillan idazleak eta Ander Lipus antzerkilarik, eta Gorka Arrese editoreak *Zertarako makinak eta erremintak* izenburuko hitzaldia eskainiko du. Arratsalderako, berriz, gazteak, kultura eta euskalgintza izenburuko mahai ingurua iragarri dute. Peru Iparragirre, Paul Beitia eta Edurne Azkarate izango dira hizlariak eta Itziar Ugartek gidatuko du solasaldia.

Ekitaldi bereziak

Ekitaldi berezirik ere ez da faltako, baina. Egun osoan muralgintzan arituko dira Txakur Gorria kolektiboko Malen Amenabar eta Mariñe Arbeo, eta talde bereko Ane Labakak eta Nerea Ibartzabalek egunaren laburpena egingo dute bertsotan. Bi kontzertu ere izango dira, gainera: Mursegok joko du eguerdian, eta Amorantek arratsaldean, Kultur Etxeko sotoan.

Ingelesa, alemana eta frantsesa lantzeko taldeak sortu dituzte Elgoibarko liburutegian

Hizkuntza ezberdinak lantzeko taldeak sortu dituzte aurten ere Gotzon Garate Udal Liburutegian. Lau talde sortu dituzte: ingelesezko bi (erdi mailakoa eta goi mailakoa), frantsesekoa eta alemanekoa. Talde hauetan parte hartu nahi duenak liburutegira jo behar du edo 943 743 525 telefono zenbakira deitu. Ingelesean hasi berri direnentzat ere taldea sortu nahian ari dira. Saiok ostiraletan izaten dira, liburutegian, 18:00etatik aurrera.



Javier Elorza historialariak hitzaldia eskaini du San Telmo museoan

2019an 500 urte beteko dira Juan Sebastian Elkano nabigatzaile getariarrak lehen mundu-bira abiatu zuela eta aitzaki hori baliatuta ziklo berezia antolatut dute Donostiako San Telmo museoan, Elkanoren bizitzan, mundu-biran eta horrek gizartearen eraldaketan izan zuten eraginean sakontzeko. Ziklo horren barruan, *La marinería vasca en las grandes gestas de Elkano* hitzaldia eskaini zuen Javier Elorza historialariak asteartean.



Aire libreko margo lehiaketa antolatu dute Mendaron biharko, urriaren 6rako



Azken urteotako ohiturari jarraituz, aire libreko margo lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak biharko. Nahi duten guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketan, eta epaimahai tekniko batek aukeratuko ditu gero lanik onenak. Izen emateak 9:00etatik 11:00ak bitartean egin beharko dira udaletxeko harreran eta lanak 13:00etatik 14:00ak bitartean aurkeztu beharko dira frontoian. Mendaro herriari dagokion edozer marraztu ahal izango dute lehiaketarako aurkezten direnek. Irabazleak 600 euro jasoko ditu dirutan, eta lehenengo eta bigarren accesitek 300na euro. 14 urtez beherakoetan, berriz, bi sari banatuko dituzte.

Ondoren, aukeraturako lanekin erakusketa osatuko du Udalak, urriaren 12tik 21era bitartean. Lagun Betikoak elkartean duen lokalean jarriko dituzte nabarmendutako lanak ikusgai eta barixaku eta zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara, eta igandeetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Edoskitze naturalaren astea dela gogoratzeko ekitaldiak

Edoskitze naturalaren astea ospatzeko ekitaldien barruan, *Respeta mi teta* film laburra proiektatu zuten atzo, eta ondoren, mahai-inguruan solastu ziren Maitasunez Hazi taldekoak eta edoskitze tailerlean parte hartu duten hainbat lagun. Biharko, berriz, jai berezia antolatu dute Maitasunez Hazi taldekoek Elgoibarren, Kalegoen plazan. 12:00etatik aurrera, informazioa banatzen ibiliko dira eta umeentzako tailer ezberdinak ere izango dira. Azaroan, berriz, edoskitzearen inguruko argazki-erakusketa antolatu dute. Azoaren 16tik 18ra egongo dira ikusgai lehiaketarako aurkeztu diren argazkiak, Eibarko Kultur galerian Ordutegia: azaroaren 16an, 18:30etik 20:30era, eta azaroaren 17 eta 18an, 12:30etik 14:30era goizez, eta 18:30etik 20:30era arratsaldez.



Aldamioak kenduta, agerian gelditu da Aita Agirre kulturgunea izango dena

Gaur zortzi kendu zituzten langileek ordua arte Aita Agirre eraikina erdi ezkurtan zuten aldamioak, eta ordutik bistan da kulturari eskainitako eraikin berriak izango duen itxura. 2017ko uztailean hasi zituen IZA Obras y Promociones S.A. eraikuntza enpresak eraikina birgaitzeko lanak, eta berez, hamalau hilabeteko epea dute lanak amaitzeko. Elgoibarko Udalak 2,39 milioi euroan esleitu zizkion lanok IZA Obras y Promociones SA enpresari. Eraikina kulturari eskainiko zaio oso osoan eta www.aitaagirre.net webgunean daude ikusgai plano guztiak.



Bi xake txapelketa daude jokoan aldi berean Elgoibarren eta guztira 62 xakelari ari dira lehiatzen

Zubi Ondo xake taldeko kideak eskuak bete lan dabilta. Nazioarteko Danobat Irekia antolatu eta egun gutxitara, federatutako xakelariarentzako 2.200 elo azpiko Danobat Irekia hasi zen irailaren 27an, Kultur Etxeko sotoan. 32 xakelari dabilta lehiatzen eta zazpi txandatan jokatu dute elkarren aurka, abenduaren 13ra bitartean. Zubi Ondoko bederatzikide ari dira parte hartzen. Era berean, VII. Danobat Iriondo xake txapelketa ere aste honetan hasi zen, astelehenean, hain justu ere. 30 xakelarik eman dute izena eta otsailera arte arituko dira lehiatzen Iriondo tabernan. Lau multzotan banatuta jokatu dute lehen fasean. Multzo bakoitzeko bi onenak Liga txapelketa jokatzeko sailkatuko dira, eta 3. eta 6. postuen artean sailkatzen direnek Kopa txapelketa jokatu dute. Jabi Muñoz mendarokoa da egungo txapelketa. Bestetik, ume eta nagusientzako xake ikastaroak ere martitzenean hasi zituzten. Mikel Leon ari da umeei irakasten eta gaur izango da hurrengo saioa, 17:00etatik aurrera Pedro Murugutzan duten egoitzan. Nazioarteko Maisua den Alejandro Franco ari da nagusientzako eskolak ematen.

Markel Kerexeta Gipuzkoako txapeldun

Txapelketak antolatzeaz gainera, xake txapelketetan parte hartzen ere badihardute Elgoibarko xakelariak. Gipuzkoako Xake Azkarreko Txapelketa jokatu zuten aurreko zapatuan Villabonan, eta Zubi Ondo taldeko hiru kide lehiatu ziren: Juan Manuel Navarro 25. postuan sailkatu zen 7 punturekin; Markel Kerexeta 28. pos-



tuan 6,5 punturekin, eta Mikel Leon 48. postuan 5 punturekin. Markel Kerexeta (2.000, Elgoibar) izan zen onena 18 urtez azpikoen kategorian, eta bera da bere adin tarteko Gipuzkoako txapeldun berria.

Ainhoa Lendinez txapelduorde Azpeitiko Zuzenien mendi lasterketa bertikalean

Azpeitiko plazatik irten eta Xoxoteko San Inazioaren irudiraino igo ziren Azpeitiko X. Zuzenien mendi lasterketa bertikalean parte hartu zuten 80 lasterkariak, joan den domekan. Asier Larruzea gueñestarra gailendu zen, 34 minutu eta 12 segundoko denbora eginda. Emakumezkoetan Urruñako Maud Conbarieu izan zen azkarrena. Lapurtarrak 43 minutu eta 14 segundoko denbora egin zuten. Irabazleak baino minutu bat eta bi segundu gehiago egin zituen Ainhoa Lendinez elgoibartarrak lortu zuen bigarren postua.



C.D. Elgoibarren zozketako zenbaki sarituak

C.D. Elgoibarrek kudeatu zuen txosna hileko azken zapatuko nekazaritza eta abeltzaintza ferian. Mautxakoko gazta bat eta klubeko kamiseta bat zozkatu zituzten azokak iraun zuen bitartean eta 390 zenbakia izan zela saritua jakinarazi dute. Era berean, Haundik etxean jokatzeko duenean egiten duten zozketan 6274 zenbakia izan da saritua (ordezkoa: 6268). Haundik 0-2 galdu zuen Azkoitiko Anaitasunaren aurkako partidaren. Denboraldiko lehen porrota izan zuen.

'2019ko Kirolaren Europako Hiri' izateko hautagai aurkeztu dute Elgoibar



Elgoibar "Europako Kirol Hiria" izendatzeko aukera ebaluatzen etorri dira Europako kirol hiriak izendatzen dituen ACES-Europe erakundeko ordezkariak. Herriko kirol esparruak eta jarduerak gertutik ezagutzeaz gain, Udalak aurkeztutako txostena beste batzuekin alderatu eta azaroan emango dute erabakiaren berri, eta abenduan egingo dute sari-banaketa gala, Bruselan, Europako Parlamentuan. Euskal Herriari Bilbo, Gasteiz eta Getxo izan dira kirol hiriburu eta Elgoibar Europako Kirol Hiri izendatuz gero, nazioarte mailan fama hartzeko bultzada baliotsua emango lioke herriari kirolarlaroko fokoa sozial, politiko eta instituzionalean kokatuz. ACES-Europeko kideek Elgoibarko hautagaizaren balorazio baikorra egin dute eta izendapena lortzeko aukera nahikoa izan ditzakeela esan dute. Javier Rodrigoren esanetan, Elgoibarrek erakundeak eskatzen dituen irizpide guztiak betetzen ditu eta kirol planifikazio egitaraua dauka, maila guztietan, eskola kirolean, udal jardueretan, instalazioetan, elkarteetan... Kirolean elkartasun sentimendua ere aipatzekoa dela gaineratu zuen. Aurkezpen ona egin dutela eta hautagaizta ezberdina aurkeztu dutela azpimarratu dute ebaluatzaileek, baita Elgoibarren harrera ona egin dietela ere.

Idorbeko aldapetan agurtuko dute denboraldia txirrindulariek



Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskola antolatuta, zikloturistentzako Julian San Juanen Oroimenezko 27. San Pedroko igotza jokatu dute urriaren 12an. Txirrindulariak 12:00etan irtengo dira Kalegoen plazatik. Iker Eskibekek (Eskoriatza, 1993) hiru segunduan ondu zuen iaz berak aurkeztu urtean ezarri zuen errekorra. Hamahiru minutu eta hamazazpi segunduan egin zuen Idorbe gaineraino dagoen 3,8 kilometroko igotza pikoa.

Morkaikoren mendiko emanaldi zikloa urriaren 25ean hasiko da



Lau saiok eta Bilbao Mendi Film Festival bost film laburrek osatzen dute Morkaikoren Mendizale Elkartearen Udazkeneko Mendi Emanaldi Zikloaren egitaraua. Morkaikoko kideek esan dute programa zabal eta anitza osatu dutela eta "parekidesunean" oinarritutako emanaldiak prestatu dituztela, egitarauan emakumeen presentzia indartuta. Informazio osoagoa: www.barren.eus.

Tope Natxiok, topera

Mendaroko Tope Natxiok giza proba taldeak Angiozarreko gazte talde baten aurka neurtu zituen indarrak, Bergarako Angiozar bailaran ospatu zituzten San Migel jaien barruan antolatutako deman. Emakumez eta gizonez osatutako talde mistoen arteko lehia izan zen. Mendaroarrak irten ziren aurrea, eta 60 plaza egin zituzten 500 kiloko harriarekin. Angiozarko taldeak 52 plaza egin zituen.



LANA.....**Eskeraerak**

Etxeak , fatxadak... margotzeko prest. Margolari lanetan esperientzia handia daukat. ☎ 600 202 516

Persona euskalduna prest adinekoak edo gaixoak zaintzen lan egiteko.

☎ 617 571 210

Persona arduratsua edozein lan egiteko prest. Etxeko langile modura zein orduka ere aritzeko gertu.

☎ 643 413 526

Adinekoak zaintzeko prest. Orduka zein etxeko langile moduan.

☎ 612 222 362

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest. Etxeko langile moduan, orduka edo gaez.

☎ 631 891 709

Garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest.

☎ 651 479 142

Umeak edo adinekoak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest. Etxeko langile moduan edo orduka.

☎ 631 756 284

Persona nagusiak zainduko nituzke. Erreferentziak dauzkat eta berehala hasteko prest nago.

☎ 680 103 356

Adinekoak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko nituzke. Arratsaldez. Erreferentziak dauzkat

☎ 646 821 678

Edozein lan egiteko prest nago, baita etxeko langile modura ere.

☎ 631 556 507/ 602 193 095

Lan egiteko prest nago. Adinekoak zaintzen esperientzia handia daukat.

☎ 631 822 545

Adinekoak eta umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Etxeko langile moduan edo orduka.

☎ 631 870 767

Adinekoak eta umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Etxeko langile moduan edo orduka.

☎ 632 699 477

Adinekoak edo umeak zaintzen zein etxeko garbiketetan lan egiteko prest. Egun osoz edo orduka.

☎ 642 313 078

Adinekoak edo umeak zainduko zein etxeko langile moduan.

☎ 642 313 055

Adinekoak zainduko zein etxeko langile moduan.

☎ 642 811 251

Adinekoak edo umeak zainduko prest. Esperientzia handia daukat.

☎ 642 313 884

Adinekoak edo umeak zainduko prest. Esperientzia daukat.

☎ 655 435 136

Adinekoak zainduko nituzke. Etxe, lan-tegi edo komertzioetan garbiketa lanak egiteko ere prest nago. Esperientzia handia daukat.

☎ 631 790 555

45 urteko emakume elgoibartarrak goizez etxeak garbituko lituzke.

☎ 636 223 142

Adinekoak zainzen edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Astebukaeretan ere lan egiteko gertu.

☎ 632 239 398

Adinekoak zainzen lan egiteko prest nago. Etxeko langile moduan zein orduka.

☎ 631 558 243

Eskaintzak

Asteburuetan adinekoak zainduko persona euskalduna behar da.

☎ 615 006 733

Nagusi bat zainduko duen eta etxeko langile moduan aritzeko prest dagoen persona baten bila gabiltza.

☎ 653 863 482

Elgoibarko denda baten lanerako neska euskalduna behar da. Interesatuak bidali curriculum: *elgoibardenda@hotmail.com*

Akademia batean, maila guztietan ingeles eskolak emango lituzkeen pertsona baten bila gabiltza. Interesatuak bidali curriculum: *ikasgoakademia@gmail.com*

ETXEBIZITZAK.....

Santa Ana kalean etxebizitza salgai. 3 logela, trastelekua, garaiea eta igogailua ditu. Oso argitsua da.

☎ 688 607 655

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

☎ 646 390 826

GARAJEAK.....

Garajea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Elgoibarko erdigunetik gertu eta furgonetarentzako nahikoa altuerarekin.

☎ 688 697 340

BESTELAKOAK.....

Urrezko eraziuna galdu nuen. Nire familiararen arraria dauka. Aurkitu duenak laga faborez Udaltzaingoa.

KINTO OSPAKIZUNAK.....

1980an elgoibarren jaio edo eta hemen bizi direnen kinto-ospakizuna egingo dugu urriaren 27an. Izena eman nahi dutenek urriaren 13a baino lehen Laboral Kutxako ES62 3035 0007 26 0071135636 kontuan 60 euro ingre-satu beharko dituzte. Animatu!

Aurten 50 urte beteko dituzten mendaroak kinto-bazkaria egingo dute urriaren 13an. 13:00etan hitzordua Aitzbeltzen. 14:00etan talde-argazkia Trinitate plazan. Bazkaria landa errete-gian 15:00etan. Interesatuak 90 euro sartu behar dituzte ondorengo kontu korronte honetan, izena eta abizena zehaztuta: ES37 2095 5054 0091 1830 7987. Izena emateko azken eguna: urriak 5.

1978an jaiotako elgoibartarrak kinto-bazkaria egingo dute urriaren 20an. Ospakizuna Belaustegi jatetxean izango da. Joan-etorriko autobusa ipiniko dute. Izena emateko azken eguna: urriak 11. Interesatuak 65 euro sartu behar dituzte Laboral Kutxako kontu korronte honetan, izena eta abizena zehaztuta: ES74 3035 0007 2600 71136002

ESKOLA PARTIKULARRAK.....

Gitarra elektriko klase partikularrak ematen dira. Ume eta helduentzat. Gitarra elektrikoan eta magisteritza graduatua. Esperientziarekin.

☎ 688 718 170

administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Federación Vasca Administradores Locales Autónomos



ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Etxebizitza bat daukat alokairuan utzia eta alokairu kontratuaren arabera maizterrak komunitate gastuak ordaindu behar ditu. Badira hilabete batzuk, maizterrak, komunitate gastuen ordainagiriak bueltan bidaltzen dituela. Jabeen azken batzarraren erabaki zuten ordaindu gabekoak erreklamatu behar zaizkiola. Jakin nahi nuke ea komunitateari eska diezaiokedan zorretan dauden kuotak maizterri erreklamatzeko.

Azaldutako egoeran bi harreman daude: batetik, zuk komunitatearekin duzun harremana, eta horren arabera zu derrigortuta zaude komunitate gastuak ordaintzera betebeharra pertsonala delako. Bestetik, zuk, alokairu kontratuaren bidez maizterrarekin duzun harremana. Horren baitan bientzako betebeharrak daude. Horieta bat da maizterrak komunitate gastuak ordaintzea horrela adostu baitzenuten kontratuan. Beraz, zuk baino ezin diezaiokezu hori eskatu eta betebeharrak horietaz ezin da komunitatea arduratu.

Aholkua: Komunitatea etxejabearekin eskatzera baino ezin du mugatu eta honek ezin du aitzakia modura esan etxea alokairuan daukanak ez dituela kuotak ordaintzen. Hortaz, arazoa etxejabearen eta maizterren artean konpondu behar dute komunitatea albo batera utzita eta hauek elkarri egiten dizkioten erreklamazioez arduratu gabe.




Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Mikel**, asteazkenean 4 urte handi bete zenituelako. Muxu handi bat familia guztiaren eta bereziki Maialenen partez.



Zorionak, **Malen**, Astelehenean 7 urte. Prestatu pastela denok ospatzeko. Muxu pilo bat familia-koen partez.



Zorionak, **Jairo**! Bihar 8 urte beteko dituzulako. Muxu asko familia osoaren partez.



Zorionak, **Malen**! Ondo pasa! Familia osoaren partez.



Zorionak, **Malen**, gaur 9 urte bete dituzulako. Muxu handi bat familia osoaren eta bereziki Unaxen partez.



Zorionak, **Aitor** eta **Zelai**, zuen urtebetetzean, eta zorionak, **Nerea** eta **Zelai**, zuen ezkontzaren urteurrenean. Zuen gurasoen eta etxeke guztien partez.



Zorionak, **Mikel**, zure 9. urtebetetzean. Asko maite zaituen familiaren partez.



Zorionak, **Mikel**, 7 urte potolo bete dituzulako. Muxu handi bat etxeke guztien partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€.
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



SAN DOKE KALEA, 20 · ELGOIBAR
www.textillagunak.com

943 744 457

GOLIATH COMPLET LASTAIRA

- Haurraren lehen hilabeteetan, gorputza buruz behera geratzea saihesten du.
- Kotoi organiko zorroa, babestutako zorroa, transpirablea eta iragazgaitza.
- Elementuak umearen beharren arabera jarri edo kendu ditzakezu.



Lastaira, 15° dituen tala anatomikoa eta zilindro ez-labalgarrak.



IKASBAI
akademia

667 261 248
(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademiaelgoibar@gmail.com

- LH
- DBH
- GAI GUZTIAK
- TALDE TXIKIAK
- EUSKARA ERREFORTZUA

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359

www.uzurioptika.com

AUDIFONO DIGITAL BERRIENAK



Ez da soinu kalitatea bakarrik;
bizi-kalitatea ere bada



5 BARIXAKUA

18:30-20:30 Erakusketa: Mertxe Sueskun eskultorea. Astelehenetik larunbatera, 18:30etik 20:30era. Urriaren 20ra arte. Kultur Etxeko erakusketa gelan. Antolatzailea: Kultura Saila.

6 ZAPATUA

9:00-14:00 XXIII. Mendaroko Aire Libreko Margo Lehiaketa. Lanen Zigilatzea 09:00etatik 11:00etara. Lanen aurkezpena 13:00etatik 14:00etara frontoian. Erakusketa: urriaren 12tik 21era, ostiral, larunbat eta igandeetan 12:00-14:00 eta 18:00-20:00 Lagun Betikoenean.

9:30-18:00 'Euskara ala ezkara'. 20 kulturgileren jardunaldia. Literatura, musika, antzerkia, euskalgintza eta bertso-larritza. IMHn eta azken kontzertua -Amorante- Kultur Etxeko sotoan.

10:30-14:00 Stock feria eta zozketa. Maalako parkean. Antolatzailea: Txan-kakua Merkataria Elkartea.

11:15 Ermuko auto klasikoan II. kontzentrazioa. Mendaroko Ormolara bisita.

12:00 Edoskitze naturalaren Europako astea. Maitasunez hasi edoskitzen eta hazkuntza taldeekin familientzako jaia: informazio mahaia, umeentzako margo-tzeko txokoa eta edoskitze taldea. Kalegoen plazan, udaletxeko arkupeetan.

7 DOMEKA

Meza nagusiaren ondoren, Errosarioko amaren ezpata-dantza. Parrokia aurrean hasita. Antolatzailea: Haritz Euskal Dantzari Taldea eta Udal Txistulari Banda.

11 EGUENA

19:00 Meditazioa eta jardunaldia: *Buru isilduz*. Gidaria: Jose Cruz Igar-tua. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatz-zailea: Isiltasun Eskola.

12 BARIXAKUA

12:00 Julian San Juanen Oroimenezko San Pedroko igoera. Antolatzailea Elgoi-barko Lagun Taldea txirrindulari eskola. Irteera Kalegoen plazan.

GAZTEEN EGUNA MENDARON

6 ZAPATUA

12:30 Pasta-lehiaketaren hasiera.

14:30 Gazteen bazkaria.

Bazkalostean, jolasak.

19:30 Elektro Txufila elektrotzaranga. Gaztetxetik hasita.

23:30 Kontzertuak gaztetxean. Jo ta lto (Mendaro) eta Guri 5 taldearekin erromeria.

**IB 6303BK CATA
SUKALDE-GAINEKOA**



269€

3 gune Booster funtzioarekin
9 potentzia maila
Gune bakoitzean tenporizadorea
Indukzioa

**3SC871B BALAY
LEHORGAILUA**



329€

Kondentsazioa
Soft Care dariborra
B
7 kg

**CM760 AS BK
CATA LABEA**



289€

A
AQUASMART garbiketa
Multifuntzioa

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
5 BARIXAKUA	6 ZAPATUA	7 DOMEKA	8 ASTELEHENA	9 MARTITZENA	10 EGUAZTENA	11 EGUENA	12 BARIXAKUA
Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Yudego
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Yudego

*** Fernandez:**
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

*** Ibañez:**
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

*** Oruesagasti:**
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)
943 254 410

Zinea (Herriko Antzokian)

'Yucatan'

5 Barixakua, 21:30
6 Zapatua, 19:00/22:15
7 Domeka, 19:00
8 Astelehena 21:30


'Los increíbles 2'

7 Domeka, 16:30

Irailean hildakoak
. Asuncion Arregi Ironto

90 urte, irailak 6

. Javier Muñoz Mediavilla

78 urte, irailak 15

. Josefa Agirrebeña Arizaga

90 urte, irailak 15

. Maria Isabel Juaristi Cilleruelo Bristol

66 urte, irailak 18

. Carmen Fidalgo Vide

91 urte, irailak 19

. Julian Juaristi Soraluze Artaso

66 urte, irailak 19

. Antonio Gurrutxaga Askasibar

89 urte, irailak 23

. Cesar Tamayo Garcia

66 urte, irailak 30

. Enrike Etxaniz Osoro Munandi

79 urte, irailak 30



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
 Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Iñigo Lamelas



Jose Luis Azpillaga



Hara hor argazki ederra! Landare hori gaztelaniazko *lavanda* da, inondik ere! Valladolid aldeko sailak omen dira, horra Iñigoren oharra. Nola esaten ote da *lavanda* euskaraz? <https://hiztegiak.elhuyar.eus-en> begiratu, eta.. hara!.... *Izpilikua!* Bai hitz polita! Ezaguna egin zait, baina erdi ahaztua nuen! Iñigoren argazkiari esker, orain ja ez zait ahaztuko.

Badira, bai, hitz politak euskaraz: *adabaki, demasa, txurrut, mitxilkotia* (*tximeletari* horrela esaten omen zaio Elgoibar inguruan). Tira, nork bere gustuko berbak izango ditu. Ez da *ariketa* txarra gure gustuko hitzei buruz hitz egitea: zein da zuretzat euskarazko hitzik politena? Ale berriak ikasi edota ezagunak finkatzeko balio dezake.

Euskaltegiko ikasleek ere, urtero bezala, aurki ekingo diote

euskarazko berbak ikasteko lanari. Hitz eta hizkuntza berriak ikastea, ordea, bide luzea da, argazkikoa bezalakoa: helmuga urruti bistaraten da, edo ia ez da ikusten. Osterantzean, baina, bi bideek ez dute antz handirik: hizkuntz ikaslearena maiz ez da zuzen-zuzena, bihurgune nahiko itxiak ditu, eta batzuetan atzerantz doala ematen du, aldapa gogorak ere baditu, eta sarritan gehiago ematen du baso itxi eta ilun bat, usain gozodun loreen arteko bide lau bat baino.

Horregatik, oso baliagarria iruditzen zait Karmelo Ayestarane *Goza daiteke gehiago. Euskaldun baten hizkuntza-bidaia* liburuaren egileak emandako aholkua: "Geuk erabakitzen dugu zezegaz gozatu egiten dugun edo bestela sufritu, bekokia ilun daukagun edo irribarrea. Eta ikusita dago ilusioz eta pozez errazago lortzen direla helburuak". Ea denon artean ikas prozesua gozagarri egiten asmatzen dugun. Izan ere, esaearak dioen moduan: gustuko tokian, aldaparik ez!

"Hitz eta hizkuntza berriak ikastea, ordea, bide luzea da"



Enrike Etxaniz Osoro

"Munaundi"

2018ko irailaren 30ean hil zen, 79 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA


Luis Etxeberria Larrañaga

"Parapan"

2017ko urriaren 9an hil zen.

Beti egongo zera gure bihotzean.

Zure familixakuak



I. URTEURRENA

Nizeto Garate Goiarzun

2017ko urriaren 10ean hil zen, 94 urte zituela.

**Urtu ziren elurrak, gorritu ziren gereziak,
hasi dira erortzen zuhaitzetako hostoak.**

**Urtebete. Baina zutik dirau zuhaitzak, eta, ikusten duzu:
handik hona, sortu dira berriak.**

Emazte eta familiaren partez



Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112

etxegain

BIZIGUNEA

... ETA ORAIN
2 LOGELAKO ETXEBIZITZAK

145.000 € -TIK HASITA

Gorenean

WWW.ETXEGAIN.COM

elgoibar

2, 3 ETA 4
LOGELAKO
ETXEBIZITZAK

TERRAZA ZABALAK ETA
PERTSONALIZATZEKO MODUKO
TXOKOAK DITUZTEN BEHEKO SOLAIRUAK

LOGELAK
10 M²-TIK
GORAKOAK

EGONGELA
GUZTIAK 20 M²-TIK
GORAKOAK

IKUSPEGI ZABALAK
DITUZTEN TERRAZA
HANDIAK GARAIERAN

etxegain goi-mailako sustapena duzu. Ikuspegi inbidiagarri gozatzeko aukera ematen duen goragune batean, goi-mailako eraikin bati dagozkion materialez egina, eta betiere GRUPO EIBAREk eskaintzen duen zerbitzu-maila gorenarekin, zure etxebizitza pertsonalizatzeko aukera zabalekin. **etxegain** en prezioak soilik dira baxuak, eta horregatik da goi-mailako higiezin-inbertsioa.



GE grupo eibar
inmobiliario

943 31 66 11

E.: comercial@grupoeibar.com
San Francisco 32, bajo • 20870 Elgoibar

689 66 08 01

OBRA FINANZADA POR

bankoa | Groupe
Crédit Agricole